

TOTEL

Barneko oihuak ezin ezkutatu, ezin isilik egon, amorru guztia adierazteko gogoaz zeukan Totelek. Horrelaxe zeukan izena, Totel, jaio zenean, oso motel hitz egiten zuelako Totel deitu baitzion artzainak.

Totel ez zen txikiegia jaio zenean, berarekin batera jaiotako Muturbeltz eta Erren baino handiagoa agian, sendoa zen beraz, eta azkarra zen, oso azkarra, baina gabezi handi horrek, hitz motela izateak, artaldetik at utzi zuen, lotsatu, baztertu eta azkenean, hitz bakarra ere esatera ausartzen ez zenez hitz egitea ere ahaztu egin zitzaion. Hala ere, ez zuen sentitzen zuen guztia askatzeko gogoaz galdu eta horregatik, korrika saio ederrak egiten zituen, belardian, nolabait, barnean zuen sua itzali asmoz.

Muturbeltzek artaldeko gainontzeko ardiekin hitz egin zuen behin, eta hala erabaki zuten, Totel, gauetan, guardian jartzea, txandarik gabe, Totel beti. Otsoa etortzen zen noizbehinka eta normalean guardian jartzen zena harrapatzen zuen lehenengo Otsoak, horregatik erabaki zuten Totel jartzea guardian.

Baina bi hilabete pasa ziren eta otsorik ez zen agertu Mendinaga inguruan, baina Totelek bazekien noizbait Otso beltza agertuko zela eta orduan, bereak egingo zuela. Horregatik, goiz eguzkitsu batean, bere korrika saio desamorrugarriak bukatu ostean, artzainak gaizki itxita utzi zuen hesiko zirrikitutik irten eta ihes egin zuen. Ihes egin zuen Totelek, baina berak, gizajoak ez zekien nora ordea.

Errepidera inguratu zen eta 2 kilometro egin zituen korrika txikian, ihesi, intuizioaren iparrorratzak markatzen zion norabidetik. Goseak ere heldu zion sabelean, baina 2 kilometroren ondoren, errepide bazterra belarrik gabe geratu zen, eta mendi basatirantz abiatu zen Totel. Aldapa gora, sastraka artean, beste bi kilometro egin zituen jadanik, eta tarte horretan, goiza joan egin zen, eguerdia irtetearekin batera, eta hori Totelek bazekien, Eguzkiak zeruan hartzen zuen kokalekuak esaten baitzion gaua noiz iritsiko zen, hau da, guardia noiz iritsiko zitzaion eta beharbada heriotza noiz iritsiko zitzaion. Bere sabelak ere oso ondo zekien goiza erretiratzen ari zela, eta bat-batean gelditu egin zen. Intuizioaren iparrorratza atera zuen, eta eguzkia berriro mugitzerako belardi txiki bat ikusi zuen.

Korrika abiatu zen, eta belar motzari hozkadak ematen hasi zen, hiru itzal inguratu zitzaizkionean.

- Nor zara zu?.

Totelek noski ez zuen erantzun, burua mugitu zuen eta hiru ardi ikusi zituen, begirada luzatu eta beste 40 inguru ere bazirela ohartu zen, artalde bat zen.

- Nongoa zara?

Totelen mingainak kateatuta jarraitzen zuen, nahiz eta aurpegiak sekulako Hitzaldia botako zuela salatzen zion. Horregatik mugitu zuen ezkerreko belarria.

- Marka berde dauka, urrutitik etorriko zen.- Esan zuen aurrean zituen hiruetako batek. Totelek, ongi ikusi zuen, artalde hartako marka gorria zela eta laguntza eskatzen saiatu zen, baina alperrik, bere hitzek ez zioten lagundu eta belar mokadu pare bat besterik egin ez zituela alde egin zuen.

Sastraka aldera urrundu eta negarrez hasi zen, horrela aurkitu zuen Lukainek, zerri handi, sendo, dotoreak. Barneko oihuak ezin ezkutatu, ezin isilik egon, amorru guztia adierazteko gogoaz zeukan Totelek, baina negarra besterik ez zitzaion ateratzen begietatik, eta mingainean, mingainean ez zeukan ezer, malko batzuen hondarrak besterik ez.

- Zer daukazu?

Negarraren intentsitatea bikoiztu egin zuen Totelek, ezinak eraginda, zotinka ere

hasi zen, baina hitzik ez, hitzik ez zen atera. Keinu egin zion zerriari, mingaina atera eta burua alderik alde mugituz.

- Ezin didazu hitz egin

Burua alderik alde mugitu eta azkenean lurrari begira geratu zen.

- Ez dakizu.

Ezetz Totelek, buruarekin.

- Bada, nik erakutsiko dizut, azken batean, beste zereginik ez dut, azkenaldian jan eta jan besterik ez dut egiten, egia esan oso ondo portatzen ari da gure gizona nirekin, baina beldur pixka bat ere ematen dit, izan ere, Handi, ere horrela zegoen lehen, baina orain dela 10 bat hilabete, kamioi batea sartu zuten eta ez da berriro itzuli. Gainera izena ere aldatu zion gure gizonak, Martin deitzen zion. Eta niri ere orain "nire Martin" esaten dit, ez dakit zergatik, baina beno, denbora soberan daukat, nahi duzu erakustea?

Totelek, baietz, buruarekin. Azkar ikasi zuen gainera, eta arratsaldean etortzearekin batera, hitz egiten zuen, totalka baina hitz egiten zuen. Zerriari eskerrak eman eta marka gorridun artaldera joatea erabaki zuen, orain hitz egiten zekiela probestuz, gertatzen zitzaiona azaltzeko.

Barren guztia dardar batean zuela hurbildu zen, beldurtuta zegoen erabat, baina burua altxatu eta pauso txikiak lasaitasun keinuz eta ausardi zantzuz emateari ekin zion. Lehenago gerturatu zitzaizkionetako bat, beregana zetorren azkar, eta Total hitz egiten hasi zitzaion. Asmatu zuen hitza hitzari lotuz, totalka, arazo bat zuela esaten, baina belarrigorridun ardia ordurako korrika egiten hasia zegoen, izaturik eta istiluka. Eguzki izpiek zelai harren ondoan zeuden zuhaitzetan kokatzerako, bakarrik zegoen, belardi argiaren erdian. Negar zotinka hasi zen berriz ere, horregatik hurbildu zitzaion Kalte.

Begiak bustita zituen Totelek ordea, eta ez zuen ikusi ere egiten, horregatik Kalte metro pare bat urrundu behar izan zuen.

-Kaixo Kalte naiz, zer daukazazu?- entzun zuen Totelek, negarrari uztearekin batera. Burua mugitu zuenean, behi handi bat ikusi zuen berari begira erantzun gose aurpegiarekin.

-Ni Total naiz – asmatu zuen esaten. Behiak atzera pauso bat eman zuen, baina Totelek hitz egiten jarraitu zuen.- Hitz egiten ez dakidalako nire artaldetik bota naute, eta ihes egin dut, txerri batekin aurkitu naiz eta hitz egiten irakatsi dit, baina zuen etxeko artaldera inguratu naizenean guztia kontatzeko asmoz, ihes egin dute.

Behiak begiak atera beharrean zituen, baina Total hain gaizki ikusita laguntzen saiatu zen.- Ez dut uste nik lagundu ahal izango zaitudanik.

-Zergatik Ez?

-Behi bat naizelako, eta behiak bezala hitz egiten dut

-Eta?

-Begira Total, zu ardi bat zara, eta ardien moduan hitz egin beharko zenuke, eta txerriek bezala hitz egiten duzu, horregatik izutu dituzu guztiak. Baina gauza bat esango dizut nik ere ihes egiteko gogoia izan dut behin baino gehiagotan, izan ere, Gure nagusiak beti bakarrik uzten nau, esne gutxi ematen dudalako eta beti Mataderora eramango nauela esaten du.

-Mataderora?

-Bai, dirudienez, ni bezalakoak hara eramaten dituzte, eta egia esan nik ere, gogoia daukat, han ni bezalakoak egongo dira, eta haiekin ongi biziko naizela uste dut. Baina bitartean pazientzia izan behar dut eta hemen gelditu, zuk ere berdin egin beharko zenuke.

-Ongi, baina lehenengo hitz egiten erakutsi behar didazu?

-Behiak bezala?

-Bai, behiak bezala, ideia bat bururatu zait.

Belardia itzalpean sartu zen arte aritu ziren biak, eguzkiak ekia atzean utzia zuen jadanik, eta laster ezkutatu zuen.

-Joan egin behar duzu Totel, berandu da, eguzkia ezkutatu aurretik iritsi beharko zenuke etxera.

-Egia da bai. – Totelek Kalte utzi zuen eta kezkatuik zegoen, ardiek bezala hitz egiten ez zuelako, baina pozik, Muturbeltz uxatu zezakeela pentsatzen zuelako, gorroto zuen Muturbeltz eta oraingoan izutu egingo zuen.

Bidean aurrera egin zuen, baina sastrakak besterik ez zituen ikusten, bidea galdu egin zuen, izan ere, eguzki erdia ezkutatu egin zen dagoeneko eta aurrean zuena ozta-ozta ikusten zuen. Beldurtuta zegoen guztiz, bakarrik zegoen eta eguzkiari ez zitzaion izpirik geratzen dagoeneko, heriotza oso hurbil sentitu zuen, otsoen uluak entzuten hasi zen eta etxeko arrastorik ez.

Eguzkia ikusten ez zuelarik, argi bat somatu zuen zuhaitz artetik, eguzkia ezkutatu zela adierazten zuena, ilargia zen, ilargi bete-betea, horrek lagunduko ziola bidea aurkitzen pentsatu zuen, baina otsoak geroz eta gehiago entzuten zituen aldi berean, eta halako ilargia zegoen batean ikusi zuela otsoa gogoratu zen.

Korrika egiten hasi zen, otsoen uluak atzetik segika balitu bezala ozenago entzuten zituen, eta ugariago, dardarka zegoen, hil egingo zen. Ziur zegoen, otsoak oso azkarrak dira, eta gainera oso nekatuta zegoen, ia etsi egin zuen, baina bere hankek aurrera jarraitzen zuten. Bat-batean itzala somatu zuen, geldi geratu zen, urduri eta heriotzaren zain isil isilik.

Uluak etengabeak ziren eta oso hurbil zituen. Hotza sentitu zuen gorputz guztian, ilea tente zituen erasorako prestatu izan balira bezala, itzala bere aurrean jarri zenean.

Amorru zen, artzain zakurra, dirudienez bere bila ibili zen egun guztian eta oso haserre zegoen. Totel ez zen inoiz Amorru ikusteaz hainbeste poztu eta zakurra atzetik zuela korrika egiteari ekin zion. Baserrira hurbiltze ari zen neurrian otso uluak indartsuagoak ziren, ez zekien zer egin, jarraitu edo geldi geratu. Baserrirako bidean zeuden otsoak eta haiekin topatuko zen jarraitzen bazuen, baina Amorru atzetik zuen, urduri eta haserre.

Baserrira heldu zenean, artalde guztia korrika ikusi zuen, eta otso bat erdian, istiluka hasi zen beldurraren beldurrez, bereak egin zuen.

Guztien harridurarako ordea otsoa geldi geratu zen, azpian zuen ardi gajoa bakean utzita, Toteli begira geratu zen. Totelek buelta erdia eman zuen, ez zion jaramonik egin Amorruri eta istiluka hasi zen. Bat-batean otsoa urruntzen hasi zela ikusi zuen, korrika bizian, eta uluak urruntzen. Atzera begiratu zuen, artaldea berari begira zuen, harriduraz, azalpen baten eske baleude bezala.

Totelek inguratzea erabaki zuen, Muturbeltz ikusi zuen odoletan, oso zauriturik, lurrean, bere ondoan jarri zen, ez zekien zer sentitzen zuen, poza hala pena.

-Eskerrik asko Totel. – entzun zuen arte, Muturbeltzek bazekien Totel iritsi ez balitz ez zela bizirik egongo eta berriro errepikatu zion. Hurrengo eguzkian, guztiak sustoa gorputzean zutela lo egin ostean, ulertu zuten gau hartan pasa zena. Otsoa Totel entzutean izutu egin zen, ardi bat ikusten bazuen ere txerria eta behia entzuten zituelako eta zer zen ere ez zekien, beraz bada ez bada ere ihes egin zuen.

Gau hartatik aurrera gainera, artalde kideek ere, ez zuten Totel gaizki ikusten, bere ondoan salbu zeudela zekitelako eta guztien artean hitz egiten erakutsi zioten. Muturbeltzek ere, sendatu zenean artalde buru berri izendatu zuen Totel.